

## HEZKUNTZA ANTZERKIA 2018-2019

### **GILTZADUN ETXEA** (Tanttaka) DBH Gaia: emakumeen kontrako indarkeria

Sorkuntza eszeniko ezohiko bat dugu hemen, bertan, hiru emakumezko aktore gizarte langile talde baten erraietan sartuko dira. Egunerokotasuna islatzen duten momentuen bitartez, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako bi egoitzatako (Larrialdi Egoeretarako etxe bat eta Abegi etxe bat) bizitza biluztuko digute.

Data: Azaroak 29 (osteguna)

Non: BBK gelan (Gran Vía 19-21; Bilbao)

Saioak: 10:00etan eta 12:00etan

Adina: 12 urtetik aurrera (DBH)

Prezioa: 2€/ikasleko

Euskeraz

### **KAPUT** (Ganso & Cia) 5 urtetik aurrera. Gaia: errefuxiatuen egoera

Kaputek bi zororen eta auto baten ihes geldia kontatzen digu. Bi bidaideak gure aterpean hartuko ditugu, itxaropena eta barealdi-tartea emateko.

Kaput barretik eta optimismotik gerraren drama unibertsalera eta bere zeharkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hunkigarri, urratzaile eta zentzugabekoa da.

Data: Urtarrilak 14 (astelehena)

Non: BBK gelan (Gran Vía 19-21; Bilbao)

Saioak: 10:00etan eta 12:00etan

Adina: 5 urtetik aurrera (HH eta LH)

Prezioa: 2€/ikasleko

Textu gabe

### **HILOS** (La Rous) 7 urtetik aurrera. Gaia: amatasuna

Mundura zilborrestearen bidez loturik etortzen gara, horrek oso era berezian elkartzen gaituelarik amarekin, baina zer gertatzen da gero hari horrekin? Jaiotzen garenean eten egiten da zilborrestea, baina bi aldeen arteko lokarriak, hari ikusezin gisa, bizirik irauten du. Neure amaren istorioaz hitz egiten dizuet: bizitasunez beteriko emakumea zen, mundura hamalau seme-alaba, berari hari batez lotuak, ekarri zituena.

Data: Martxoak 6 (azteazkena)

Non: BBK gelan (Gran Vía 19-21; Bilbao)

Saioak: 10:00etan eta 12:00etan

Adina: 7 urtetik aurrera (LH)

Prezioa: 2€/ikasleko

Gazteleraz

## HEZKUNTZA ANTZERKIA 2018-2019

### **MUXUA** (Tanttaka) DBH Gaia: sexu-identitatea

Lorenzok 15 urte ditu, eta umezurztegia utzi eta abegi-familia batekin bizitzera joan da, Italiako hiri txiki batera. Han, Antoniorekin maiteminduko da. Antoniok sentimenduak adierazteko zailtasunak ditu, eta ez daki nola erantzun Lorenzok erakutsitako afektuari. Elena, berari falta zaion adorea ikasleei emateko gogotsu dagoen irakaslea, horren testigu izango da.

Data: Maiatzak 14 (asteartea)

Non: BBK gelan (Gran Vía 19-21; Bilbao)

Saioak: 10:00etan eta 12:00etan

Adina: 12 urtetik aurrera (DBH)

Prezioa: 2€/ikasleko

Euskeraz

### **NESKA BAT** (La Rous) 5 urtetik aurrera. Gaia: ingurugiroa

Hirian urrutiko kai herdoildu batean bizi da emakume bat. Jendeak bertan behera lagatako guztia arrantzatzen du. Egun batean, sekula ikusi bako zerbait katigatzen zaio sareetan: neskatila bat botila baten barruan. Izututa, bulkadaz errefusatu eta itsasora botatzen du berriro: beldur da, ez du ikusi gura, botila horretan islaturik sentitzen baita, ispiluan bezala. Bere pentsamenduek oroimenaren denboran bidaiatzen dute. Bila irtetea erabakitzen du, baina beranduegi da, itsasoak eraman egin baitu botila.

Data: Ekainak 4 (asteartea)

Non: BBK gelan (Gran Vía 19-21; Bilbao)

Saioak: 10:00etan eta 12:00etan

Adina: 5 urtetik aurrera (HH eta LH)

Prezioa: 2€/ikasleko

Textu gabe